

3. Janztekoak

Oñatin janztekoen dendak ere garrantzitsuak izan dira. Askotarikoak zueden: jantzigile eta jostunak, oihal-dendak eta arropa dendak, mertzeriak eta zapata-dendak. XX. mendean zehar asko aldatu den sektorea da. XX. mende hasieran gehienetan janztekoen denden jabeak gizonezkoak ziren; beranduago, berriz, emakumeak.



- **Sastreak eta jostunak**

Sastreen lana oso ondo baloratuta zegoen eta tailerrak erdiguneko kale nagusietan zituzten. Gizonak izaten ziren eta haiengandik semeengana transmititzen zen ofizioa. Hauek gizonentzako arropak egiten zituzten eskuz.

Modu berdinean, joskinak ere bazeuden. Hauek emakumeak ziren eta ez zeuden ondo baloratuta. Sastrearena ofizio inportantea zen, baina jostunena ez: emakumeen denbora-pasa edo obligazio moduan hartzen zen. Emakume askoren lana zen hau, gainera. Pazientzia handiarekin eta profesionalki egiten zuten lan eta oso gaizki ordainduta zegoen. Askotan presio handia ere bazuten, jai garrantzitsuetan jende denak arropa estreinatu nahi izaten zuen eta euren lana behar izaten zuten soinekoa estutzeko, bajuak hartzeko...

1970etik aurrera jostun batzuk profesionalizatu ziren eta hari-dendak ireki zituzten: Lantzen eta Ugari, adibidez. Beste batzuek etxez-etxe lanean jarraitu zuten. Gero egindako arropa gero eta gehiago zegoenez, lana gutxitu egin zen eta askok utzi egin zuten eta beste askok mertzeriak edo haurrentzako arropa dendak ireki zituzten.



- **Zapata dendak**

XX. mendean zapatariak oso garrantzitsuak ziren herrian. Albarkak eta alpargatak eskuz egiten zituzten gizonak. Bi emakumezko egon ziren bakarrik: Jacinta Garayoa (1910) eta M^a Carmen Ibarrondo Oleaga (1950).

Baina aipatzekoa da Angeles Olalderi (silleruenari) bere aitak erakutsi ziola alpargatagintza eta horretan ibili zen 1950. urtetik aurrera; gainera saltzaile ibiltzen zen beren zapata-dendan.

Hala ere, aurrerapenak gertatu ziren eta hauek zapatagileei kalte egin zieten eta zapata saltzaileei lagundu. Beraz, nahiz eta zapata-dendak ibilbide luzeko negozioak izan, zapatarien ofizioa desagertzeko arriskuan dago gaur egun. Oñatin dugun zapatari bakarra Kantue da.

